


Beste Mozart




NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Salzburgo (Austria), 1829ko urriaren 29a. M. A. Mozart musikagilea hil zen. Musikazalaren batek pentsa dezake hainbat akats daudela esaldi horretan, Mozart ia 40 urte lehenago hil zelako, Vienan, eta haren inizialak W. A. zirelako. Baina egun hartan 78 urte zituela hil zena Maria Anna Mozart izan zen, Nannerl ezizenez ere deitua, Wolfgang Amadeusen arreba zaharrena. Eta, egia esan, ez dago alde handirik bien haurtzaroen artean. Biak izan ziren hau prodijioak eta aita Leopoldek bien dohainei ahalik eta etekinik handiena atera zien garaiko hiri garrantzitsuenetan erakustaldiak antolatuz. Txikitatik biek ezohiko trebezia izan zuten klabea eta pianoa jotzen, baita konposatzen ere. Maria Anna, gainera, oso ona omen zen kantuan eta, arreba zaharrena izaki, anaiaren irakasle ere izan zen neurri batean.

Garai hartan ondo ikusia zegoen nekato baten talentu musikala ustatzea, ez ordea emakumeena. 1769an Nannerl ezkontzeko adinera iritsi zen, eta aitak alabaren jardun publikoa eten zuen. Hurrengo urtean Wolfgang semea soilik eramango zuen Italiara.

Nannerlek konposatutako lanik ez da gorde. Martin Jarvis ikerlari australiarren ustez, Mozartarrek pianoan praktikatzeko erabiltzen zuten koadernoko konposizio batzuk bereak dira. Baina, frogarik ezean, anaiaren hitzak dira testigantza bakarra. Izan ere, Wolfgangen gutunetan, anaiak zioen arrebaren lanak



Mozart anai-arrebak txikitik. Zaharrenaren lanik ez zaigu iritsi; gazteena historiako musikagilerik garrantzitsuenetakotzat daukagu.


oso ederrak zirela eta konposatzen jarrai zezan eskatzen zion.

Maynard Solomon musika ekoizleak idatzi zuenez, "Maria Anna jotzen ikusteak inspiratu zuen Mozart musika ikastera, hiru urte zituela; arreba bezalakoa izan nahi zuen". Gerora, Wolfgangek bere konposizioak bidaliko zizkion zuzendu eta kritikatu zitzaizun.

Maria Anna Mozarten talentua alferrik galdu izana ezin zaio soilik aitaren apetari egotzi; garai hartako -eta beste garai askotako- aurreiritziek eragin handia izan zuten horretan. Eta horregatik,

zoritxarrez, Mozart anai-arrebena ez da kasu bakarra. Chopin anai-arrebekin, esaterako, antzera gertatu zen; Frédéric Chopinen gutun bati esker dakigu Ludwika arrebak "mazurek perfektua konposatu" zuela.

Eta gurean Xenpelar bertsolariekin ere antzekoa gertatu zen, bikoiztuta gainera. Juan Frantzisko Petriarenaren arreba Maria Luisa eta, bereziki, haren alaba Joxepa Antoni Aranberri ere trebeak ziren bertsotan. Baina arrebaren eta ilobaren dohainak gizonezko Xenpelarren itzaletan geratu dira. ●



Rosetta harria etxera!

Idazkera hieroglifikoa deszifratzea ahalbidetu zuen Rosetta harria Londresko British Museumen dago 1802az geroztik. Berriki egiptoar arkeologo talde batek harria Egiptora itzultzeko eskaera egin dio museoari, eta dagoeneko milaka sinadura eta atxikimendu jaso ditu. Aswango Arkeologia Fakultate-

ko dekanok Monica Hannaren hitzetan, eskaeraren helburua "egiptoarrei zer kendu dieten azaltzea da. Ziur nago Rosetta harria eta eraman zituzten beste objektu guztiak egunen batean itzuliko dizkigutela, museoan kode etikoa aldatzen ari delako. Kontua noiz gertatuko den jakitea da". ●